

mendia ▸ IBILBIDEAK

Beartzundik Elokadi eta Marrapietara

Aldude eta Baztan arteko banalerroko mendietan, galtzada eta gotorlekuak aurkitzea izan da helburua

ASIER AGIRRESAROBEMUSKILDA TELLABIDE


Elizondotik abiatzen den errepide meharri jarraitu behar diozue auzune xarmant horretara iristeko. Sei kilometroren buruan, Berro auzoa atzean utzita eta Beartzungo erreka irekitako zintzurra gaindituta, belaiak eta baserriak nagusi diren bailarara iritsiko zarete. Mendiz inguratutako, erreka zeharkatuta, baserriak nonahi, baserri giroa eta bizimodu topatuko duzue bazter guztietan, xarma eta edertasuna; denbora-pasa denik ez zaizue irudituko.

Bailara bera osteratxoa egiteko gune egokia bada ere, Elokadiko gerrateko aztarnak eta Marrapietako galtzada ezkutua aurkitzea da xedea. Hartara, lehen bidegurutzean utz daiteke autoa, gune egoikiagorik ezean zabor edukiontzia batzuen alboan (380 m). Eskuinean, auzoko lehen baserrietara doan bidetik ekin behar diozue ibilbideari. Errekastoa gurutzatu eta lehen baserria topatuko duzue zuen eskuinean, Etxeberri. Muinoa gainditu eta bidebanatzean aurrera jo; beste bi baserrien alboetik igaroko zarete, Berekoetxe eta Garbalda. Azken horren parean amaituko da zeneramaten bidea, belardi eta irasail artetik gora abiatzen den gurdibideari bide emateko. PR baten marra zuri-horriak izango dituzue bidelagun puska batez, Zarkindegiko gainetara ino bai bederen.

Mendi lepo batera iristerakoan (480 m), norabidez aldatu eta Belaungo lepora daraman sakanean barnertatuko zarete. Hainbat borda eta harritzko itxitura ikusi ahal izango dituzue hor inguruan, eta gora zoaztela bide bazterrean beste bi ere bai. Zutik diraute gehienek; dagoeneko hondakin da baten bat. Zoazten bide beretik, urte asko ez dela, errepide bat egiten saiatu ziren. Ingurumenari kalte handia egin behar ziola eta, Baztango Udalak zorionez atzera egin, eta bertan behera geratu zen egitasmoa, nahiz eta Nafarroa Behe-

Erreferentziak

00:00 Beartzun
01:15 Belaungo lepoa
01:30 Zarkindegi
02:30 Erreka
03:00 Beartzun



Desnibela 500 m

Zailtasuna

Luzera 8,1 km

Denbora 3 ordu



Beartzungo baserri eta belaiak. ASIER AGIRRESAROBEMUSKILDA TELLABIDE



Napoleoneen galtzada. ASIER AGIRRESAROBEMUSKILDA TELLABIDE

reko udalen haserre eragin. Pagadian gora erreka zoko bi gurutzatu ostean, bide zaharrak, nabarmen zutitu eta Belaungo lepo zabal belartura eramango zaituzte (754 m). Aldudeko bailara izango duzue aurrez aurre, eta haren gaindi, os-

tertzean, Kintoako mendiak, Adartzatik hasi eta garaiereraino, Adiraino. Zutoin adierazlea eta porlanezko artetgia ere hor dituzue, lepoan bertan.

Argibel eta Arrikulunka eskuinean utziz, ezkerrean jo behar du-

zue eta maldari eutsi. Marra zurihoriek gailurra igo gabe ezkerretik inguratzen dutenez, azken zatian eskuinetik jotzea komeni da, zidor garbi batek, Aldudeko herria bistan duzuela, tontor zehatzik gabeko Zarkindegiko gainera bideratuko zaituzte (856 m). Zinez da ederra ikuspegia, jaso burua, zabaldu begiak, eta gozatu! Zuzenean gandarretik edo tontorra inguratuz ze-

Elokadiko gotorlekuak

Mugaz bi aldeetako nafarren artean sarritan izan dira liskar eta istiluak, eskuarki mendi horietako belardi eta basoak usiatzeko eskubideen inguruan. Baina Frantziako Iraultzak ekarritako giro politiko eta ekonomikoaren osteko egoerak, beste askotan bezala, Frantzia eta Espainiaren arteko gerra zenbait sortu zituen XVIII. mende hondarrean. Borroka horien testigu isila dira mendi horietan aurki daitezkeen hainbat gotorlekuren aztarnak, Lindus, Atxistoi eta Elokadikoak esaterako.


Lehen biak beste baterako utzita, gaitozen Elokadiko aztarnen berri ematera. Asko nabarmentzen ez diren muinotan daude bi gotorleku horiek, mugaleroan, 118 eta 119 mugarren inguruan, eta elkarren artean 500 metro daude. 118koak 26 x 18 metroko oinplano angeluzuzenaren forma du, ertz alakatuekin eta saihetseko tiroak botatzeko irtenuneak bi alde-

har-zehar doan bidearekin bat eginda, kontrabandoko igarobide nagusirantz, Berderitz leporantz, jarraitu behar duzue, Auza mendipuska bistan duzuela.

Hara iritsi aurretik, ordea, askorik nabarmentzen ez diren gain batzuetan (750 m), bide nagusia utzi, baita marraz ere, eta ezkerrean jo, Marrapietako sakanean eskuin hegitik barnertatzeko. Elokadiko gain horietan ikusi ahal izango ditu mendizale arretatsuak Konbentzio Gerrako gotorlekuen aztarnak. Bide lauso samarretik hasieran, belardi baten harritzko hesiaren ondotik nabarmenago ondoren, sakanean behera egin behar duzue. Harlauazako teilatutun borda xarmant batera ailegatu zarete (600 m), berehala Napoleoneen galtzadarekin bat eginez. Orbel ugari egon arren, garbi asko ageri dira galtzadarri handiak, tarte luzean gainera. Duela bi mende, bide horrek eza gutu zuen jendearen joan-etorri izugarria irudikatzen lagundu ahaliko dizue. Azken zatian bihurgune batzuk eman eta errekaraino jaitziko da; garai bateko zubirik ez dago jada, Beartzun erreka gurutzatzeko (500 m). Beste isurian, ezkerrean jo eta, borda baten ondotik igarota, Urruskara doan pistarekin bat egingo duzue. Bidean behera jarraitu eta abiapuntura iritsiko zarete, tartean, Beartzungo hainbat baserri eder ikusi eta gero: lehena Katalinko, ezkerrean; aurrerago, Ueberenea eskuinean eta Berroarte ezkerrean; eta, azkenik, Antxonborda eskuinean.

Batez beste 5 metro zabal eta 1,5 metro sakonko erlaitzak inguratzen du; harriz osatua egongo zen. Erdialdean harritzko eraikina zuen soldaduen aterpe. 19ko erabat ezberdina da, irregularrak; hiru irtenune trapezoidal ditu, artilleriako piezen kokaleku, ziurrenik. Barretik 28 x 29 metroko distantzia maximoa ditu, eta lubakiak inguratzen du. Inguruan soldaduek ostatu hartu ahal izateko eraikinak ere izan ziren. Bi gotorlekuak eskuratuta zizutzen gudu 1794ko ekainaren 3an izan zen. Orduan, Frantziako Errepublikako soldaduek, Harizpe baigorriarra buru zutela, Espainiako Karlos IV.aren soldaduen esku zeuden gotorlekuak bereganatu zituzten, Baztaneko bidea zabaldu.

Marrapietako galtzada, berri, 1808an Napoleonek Portugal bereganatzeko Espainia okupatu zuenean eraiki zuten, Baztanerako sarbide moduan.



Eguraldiak eragina du zure bizitzan. Toki bakoitzeko eguraldiaren berri zehatza izatea oso mesedegarri izan liteke zuretzat. Gure herriko informazio meteorologiko guztia aurkitzeko

www.euskalmet.net



aurreru doan herria

